

BIZKAITIK



A. ONAINDIA

Olerkigintzan

Aurtengo Pazkoz (1977-3-10), karmeldar baten ama il zala-ta, ni ere aren illetak ospatzera joan nintzan Meñaka'ra, beste apaizkide mordoeekin. Elizkizun eder euskal abesti goxoz txukunduaren ostean, itzari ekin genion aspertzeka eliz-aurre zabalean. Gero, eguzki aita Serante mendi-kaskabilla ta birak azken erraiñu odolezkoz sorgintzen zegoelarik, uk, geure beribil zurian Mungi, Derio ta Larrabetzuek zear, Larra'runtz artu genuen: erri ojetako ainitz balkoi ta leio euzko ikurriñez guztiz dotore zeuden. Gu etxera orduko, gau-itzalak zapipe goxoan zeukan lur ama.

Iru egunen buruan, an illetetan izaniko lekaide olerkari batek —ez du nik emen bere izena ñirñirtzerik gura— bazkaitara dei egin zidan maiteki. Otorduan, urruti xamar nengoen ni aregandik, eta dana joan zan berezko. biok itzik egiteko astirik, ez abagunerik izan gabe. Bazkalondan, baiña, baratzean bestekin batera ibiltaldi xamurra egin ondoren, bere gelara eraman nindun. Zer erakutsi zidan? Ingi luzanga bat zeukan idaz-mai gaiñean, zirriborroz betea.

Illeta egunez, guk Meñaka'tik alde egitean, berak Gatika'rako bidea artu zuen, laugarren agindua ere —etxekoak kutun izatea— seme ondo aziari dagokiona dalata. Bere gurasoen etxe inguru zebillela, arrats-bera zoragarri arek lilluratuta, landako bide-zidor ixil batean,

itxas-gaiñ gorri-gorrian noiz murgilduko zegoen eguzkiaren aurrez aurre eskutaturik, asaba zarren zerbait gogora nai izan zuen, lendik ere barne-muiñean ernemiñetan zebilkion zerbaiti sortzea eman nairik. Erdialdia noski. Lizardi'k bere «ltz lauz» liburuan edesten digu-naren antzekoa aurki.

Izena «Gure Asabak» izango zuen ondu nai zigun olerki lanak. Landan zirriborro batzuk egin zituen soilki; etzuen bestetarako asatirik izan, arrats beera gorrixka, errea margoztutzeko margolariak ere betarik izan ez oi duen bezelaxe. Gogai batzuk, pentsamentu bakandu batzuk, biotz-zauskada urri batzuk lerrotu zituen bakarrik. Gero, astitsuago egoenean, lana biribildu ta osotzekotan zegoen ni bere gelara eraman ninduenean. Andik sei egunera, osotu zuela esan zidan bere lana, pozik zegoela «Gure Asabak» kozkonduarekin.

Goi-argia

Poesi ori ondutzeko goiargi —inspiratio—, goi-olde zain egon omen zan luzaroan. Arrasti artan, orraitio, zapla!, bat-batean izan ei zuen espaldi guratako argi-xirripa. Ortan jakintsu diranak diotenez, argi-bear orri ez omen zaio bear aiña jaramon egiten, baiña ba-du alere garrantzia ta zer-ikusia, ta ez gutxi. Paul Valéry'k, adibidez, gora aundia ezarten dio itzlantzeari, ez ainbeste ordea argitzeari; lana da arentzat argitzea. Onela dio: «Jainkoek utsaren orde eman oi digute lenengo bertsoa; geuri dagokigu bigarrena moldatzea, lenengoarekin otskideko izan bear duena noski, goianaiarentzat duineza ez gero iñolaz ere».

Ez ustean eta ulertzeka eldu oi zaigu goitiko doai argitsu ori, izate barrena dardarazten digun goiz-kantu antzera. Erdi-aldiaren musu goxoz berotua izan eskero, gero gogo-leize osoa, ots, artistarena osorik aldatzen da, bertako indar guztien trikamaillu, azpi-joko ta iraultza sortu-erazoz. Berezko senaren zirkin, bultz-eragiñak kontu ratu gabe gero ta irudi-itxura bizi argiangoak artuz doaz. Berdin biotz-zauskadak ere; auek berriz jantzia nai dute. Itzak, soillak naiz ab-kartuak, zapi bat eskatzen dute estalgarri, oial baten ariak bezelaxe. Ametsezko naste —koloredun miesa leun— ortan betarteak, arpegiak agiri dira, laiño mee inguruko mintz sotillean lez. Leen zer argirik ikusten ez ba'zan ere, orain zerbait dugu erdi-ikuskatzen. An-kenik, itzul-inguru osoa argi dakusagu. Or poesi-lanaren sorpen, m- giera ta bilbe

Lan onek, siñist eidazu, ba-ditu bere sabel-miñak, ez baita goiz-argiaren pareko ernetzen. Au bai egia: olerkariak beti izan oi du bere bertso bultzakada; au gabe, ezin du ezer. Or osin illun, ezkutuzko, ixil, ondo-ezetik, erdi-oartuzko barren iker-eziñetik, erdi-oartuzko zerbait jaiki oi da aria bezela, argidun izpi mee segailla, sorburua barne izanik, barne arnasak eutsita, aren eragiñek biotzak eta adi-menak, olerkigintza ari bitartean eten gabe iraunik, olerkariaren izate osoa indar azten dituna. Olerkariak, beraz, ez du barne la-guntza ori sekulan ere maxiatu bear; esku samurrez oratu ta ezkonlagun kutuna bailatzen, berarekin logela ixillean egoitz beroa eskeiñi baizik.

Lilluraturik

Olerkariak, goiarnas ori beti aurrean duela atondu bear du bere lana. Adimena du antzelariak bere gogai ta bururakizunai kemena ezarteko; biotza du, bestalde, gogai ta bururakizunak zorrotz ta samurki laba bercaren galdaz goritzeko. Zer nai duzu geiago! Eman oieri, adimenaren sortzapenai ta biotzaren zirrarai, goiargizko dizdi-zari leun egokia. Ta or duzu sekulaku poema osoturik. Ez duzu erreza olerkigintzako lana, doai bereziz burutua baizik. Noraezean bear duzu lirazko begi-zizta sotilla, baita teknika jakintsua ere. Labur: idazteko, gauzak eder ikuskatzeko, bertsoak biribil taiutzeko, oitura bear da; baita norberezko zain eta azkua ere, ots, bizitasun mardula.

Ortarako laguntza ederra damakigu ezker-eskubi dugun izadiak. Adi M. Proust'ek dioskuna: «Zelataria —ixpia— zutik dago ta geldi, planuak jasotzeko; endekatua emakume baten zain; gizaseme txit menak etxakuntza berri baten aurrean geratzen zaizkizu begira. Olerkaria, ordea, geldi daukazu begiratzerik ere merezi ez duen edozein gauzaren aurrean; edonork itandu lezake maitez mindu bat otedan, edo-ta ixpia bat; itxuraz beintzat zalantzan dago begiratzen duen zugatza, zugatza danentz egi-egiaz. Zugatz orren aurrez-aurre geldi-tzen da, kanpoko zarata auztientat belarriak itxirik; or, berriz ere, errilorategi erdian, belar gaiñean bakarrik, zugatz ori lendabizikoz agertu zitzaionean somatu zuena, bere barnean somatu nairikan: oraindik ere, uste du, izotz-ondo bezela, elur mataza pitifnak ikusten dituala aren adar-puntetan, dauzkan lore zuriak ainbesterañño baitira».

Zer dagi olerkariak, orren konkortua? Zer ikusten? Zugatza baiño arago doakio bere izatea osoa, ezta sentitzen len sentitzen zuenik; ondoren baita lena sentitzen, baiña ezin du sakonazi, ezta

aurrerago jo ere. Nolako burruka! Zugatzaren lore moltzuak uda-
berriz! Ixurtzen duten usain mee ariña! Olerkariaren lillura!

Lanaren garaia

Misteriozko leize sakon barruan daramaguna borborka eltze antzo
asteen, barne-ikarak, oler-mina gainezkatzen eta oldartzen astera-
koan, indar aski kementsuz iges egin nai du barne ortatik. Nola?
Egitez, itxuraz, adierazgarri, Egiaz agertu egin nai du, jario bigunean
oroldi azpiz doan ur-zingilla iduri.

Gure olerkariak, erdi-miñez kezkatua, ixil aundizko zoko bat
billatzen du, ama batek bezela; itzak opa ditu, amak aur-zapiak
legez; itz oiek iñoizka berez datozkio, abarrots gabe goxo ta leun,
iñoizka, baita, lerrenak egin ere bai: «xamur» bat, lorazko bat, gar-
ixurkakoa, lits-gandor gorzkaz ornia, egoki ta aiutua, izate-barne
daramana adierazteko lain litzakiona idoro eziñik, aldia doakio ne-
keak neke.

Olerkaria ortan ari danean, ez joan arengana; etzaitu ondo ar-
tuko; utz paketan bere erdi-bitzean, ez du bear laguntzarik: bear
bada poztu ta lagundu ustez, nekatu egingo duzu, bere egiterako
bear duen kemena zerbeldu. Amak ez du, bere erdi-aldian, aitarik
ere ondoan nai, ta are gutxiago aren ezpain-ertzeko irripar maltzu-
rrik. Utz pakean, otoi!

Gela ixillean gorderik, idazten diardu olerkariak. Ba-doa poliki
poliki; itzak ba-datoz, berez urrean, nekerik gabe beñik-bein: aditz-
era egokiak, itz politak, izen sotillak, izen-ondo ta izen-lagun bipi-
llak, adierazgarri ta biziak oso. Arrapaladan doa itz bakoitzean, izen
ondo bakoitzean olerkariaren arima, zatika noski, zegoen baitegitik
irten duelako pozarren nunbait. Orrelaxe tantaka lendabizi, iraduz
gero, bere ezpirituaren zatiz neurtitz-lan biribilla osotzen du.

Or duzu poesi baten sorpena ta argitaratzea. Edu orretan idoro
nuen nik Gatika'ko olerkaria bere idaz-maitik aldendu gabe. Orrelaxe
gero, zapi zuri-gorri-orlegiz, erakutsi zidan bere semeño jaio-berris.
«Gure Asabak» izenez bateatu zuen, aintziña-aintziñatik gogotan zera-
billen izen gogoangarriz, ain zuzen. Ulert-gaitza zan irripar zarketat
so-egin zidan, kopet-azpiko bi betazalak zirkinduz ta «Nolakoa de-
rizkiozu?» neri esan-naiez bezela. Besoetan artu ta «pa» ezta eman
nion masail boldro bietan. Amaren poza! Jabeari biurturik, esan nion:
«Zoragarria! Noiz beste bat ekorriko?».

IGOTZ

LETRA GOZOAK

Bi karnabatxo ikusi nitun
Zugazti baten jostari,
Beren arteko maite-asmoak
Alai esaten alkarri:
«Asi gaitezen lastoak biltzen,
Txotxak lenbaitlen ekarri,
Kabi txukun bat egin dezagun,
Ta bertan arrautzak jarri...»

Gero, maite, zu, etzango zera
Arrautzatxoak berotzen...
Antxe orduak igaro bear,

Arin eldu zan bestea ere,
Ta karnabatxo emea
Arrautz gainean artaz etzan zan,
Bete arteño epea,
Ta epe ori bete zanean
Jaio zan txorjumea,
Berealaxe agertuko zan
Aldamenean bestea.

Pozaren pozez karnabatxoek
Ekin zioten kantari:
«Eskerrak eman dagizkiogun

BI
K
A
R
B
A
T
X
O



A.
B
A
T
I
Z

Txitoñoak ateratzen...
Ta oiek jaio zaizkigunean,
Ariko naiz denok zaintzen,
Soro, landetan zu ta umeentzat
Jaki goxoak billatzen...».

Or bukatu zan bi txori aien
Alkar-izketa gozoa,
Ta bereala gogoz asirik
Kabi-egite arloa,
Egun batzuek geroxeago
Einda zegoen kabitxo,
Baita bertantxe biamunean
Lenengo arrautzatxo.

Jaungoiko Egilleari,
Guri biori egin baidigu
Gaur bezuza ta opari...
Gure abesti eztitsuenak
Bijoazkio Berari».

Eta ementxe buka zait nere
Karnaba-kondairatxo;
Zuen biontzat iduritzen zait
Egoki, aukerakoa.
Ipui ontako txorien antzo,
Poz ta zorion osoa
Izan zazute, beti zuekin
Lagun dalarik Jainkoa!!!